


Euskal AEko BPG % 0,4 hazi da, eta enplegua % 0,3, 2023ko lehen hiruhilekoan

2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, BPGren hazkundera % 2,2koa izan da, eta enpleguarena, berriz, % 1,5ekoa

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 0,4 igo da 2023ko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta hiruhileko arteko tasa positiboak izan dira dagoeneko elkarren segidako hamaikagarren hiruhilekoz, Eustatek eginiko Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenaren kalkuluen arabera. 2022ko lehen hiruhilekoaren aldean, Euskal AEko BPG % 2,2 igo da.



Aurrerapen hau egin den unean eskura zegoen koiunturazko informazio ekonomikoaren arabera, Euskal AEko ekonomiaren sektore nagusietako jardueraren urte arteko dezelerazio txikia dago, nahiz eta bilakaera positiboa izan.

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, % 0,3 igo da 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, % 1,5eko hazkundera aurreikusten da.

Datorren **ekainaren 2an** Eustatek argitaratuko ditu 2023ko lehen hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak, Aurrerapen hau egiteko unean eskuragarri ez zegoen informazio koiunturala sartu ondoren.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62